

OYÓN-OIONGO ARDO- ETA OLIO-ARGAZKIGINTZAREN VIII. LEHIAKETA

DEIALDIAREN OINARRIAK.

1.- DEIALDIAREN XEDEA.

Lehiaketa honen helburua da Oyón-Oiongo ardo- eta olio-jardueraren balioa, beharra eta garrantzia sustatu, zabaldu eta kontzientzia harraraztea herritarrengan. Eta lehiaketa honen edizio honetan parte-hartzea sustatu nahi da.

2. – PARTE-HARTZAILEAK.

Edozeinek parte hartu ahalko du deialdian, zehaztutako epean argazkiak entregatuz gero. Ez da adin mugarik egongo, ezta herritartasun mugarik ere. Muga bakarra izango da epaimahaikideekin harremanik izatea: ahaidetasun-harremana, harreman profesional edota adiskidetasun-harremana.

3.- GAIA, TEKNIKA ETA FORMATUA.

Argazkien gaia Oyón-Oiongo ardo eta oliogintza izango da. Horretarako, oinarritzat erabiliko dira ardo eta oliogintzako ondorengo baliabideak: nekazaritza-jarduerak eta/edo -prozesuak, lurra lantzeko lanabes eta teknikak, nekazaritza-kultura, ohiko nekazaritza-paisaiak eta bestelako ekintza osagarriak.

Argazkiak argazki-paperean entregatuko dira, koloretan. Gutxieneko neurria ondorengoa izango da: **30 x 40 cm**. Gehieneko neurria: 40 x 50 cm. Tamaina bereko euskarri zurrun batean entregatuko dira lanak (kartoi-luma edo antzekoa).

Lanak originalak eta berriak izango dira, gure udalerrian egindakoak. Ez da onartuko aldi berean beste lehiaketa batera aurkeztutako argazkirik, lehenago saritu den argazkirik edo eskubideak hirugarren batek duen argazkirik.

Bereziki ondorengoa baloratuko da: moldaketarik ez duten argazkiak (elementuak jarri edo kentzeko), hainbat argazki nahasten ez dutenak edo jatorrizko irudia moldatzen ez dutenak eta fotomuntatze baten ondorioz egindakoak.

4.- AURKEZPENA ETA EPEAK.

Parte-hartzaileek haien lanak bi gutun-azaletan entregatuko dituzte: 1) A gutun-azala: argazkia, eta horren atzealdean eta gutun-azalaren kanpoaldean lelo edo izenburua. 2) B gutun-azala: Lanaren izenburua edo lema jaso beharko da gutun-azalaren atzealdean, eta, gainera, barnean, honako hau:

- Argazkien euskarri digitala edo negatiboa (inprimatzearen bereizmena).
- Argazkiaren azalpen laburra jasotzen duen dokumentua, erabili den kamera eta argazkia egin den lekua.
- Ondorengo datuak jasotzen dituen dokumentua:
 - * Izen-abizenak.
 - * Helbidea.
 - * Telefonoa eta helbide elektronikoa.
 - * Argazkien egiletza ziurtatzen duen zinpeko agiria.
- NANaren edo egoitza-txartelaren fotokopia. Parte-hartzailea adin txikikoa bada, haren legezko ordezkariaren baimena beharko da NANaren kopiarekin batera.

(Bi gutun-azalen kanpoko zigilatuan argazkiaren LELO EDO IZENBURUA AGERTU BEHARKO DA. Parte-hartzaile bakoitzak 5 lan aurkeztu ahalko ditu gehienez).

Obraren bilgarri, garraio eta aseguruak kontratatuz gero, gastuak egilearen edo haren ordezkariaren esku egongo dira, emate zein bilketan.

Obrak lehiaketan entregatzen direnean, ezingo dira berriz jaso ezta lehiaketari uko egin ere emaitza argitaratu baino lehen.

Argazkiak ondorengo helbidean entregatuko dira:

Oyón-Oiongo Udala - Argazkigintza lehiaketa, Plaza Mayor kalea 5, 01320 Oyón-Oion (Araba).
Asteleheneretik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

Lanak entregatzeko azken eguna 2018ko uztailaren 6a izango da, 14:00etan.

Era berean, postaz bidalitako dokumentazioa udal-bulegoetan egon beharko da **2018ko uztailaren 6an**. Parte-hartzaileen ardura izango da dokumentazioa oinarrietan zehaztutako epe barruan entregatzea. Jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordu horretatik kanpo jasotzen den dokumentazioa ez da onartuko.

5.- EPAIMAHAIA ETA ERAKUSKETA.

Udalak aukeratuko ditu epaimahaikideak eta ageriko inpartzialtasuna izango dute.

Aurkeztutako obren artean hautaketa bat egingo da erakusketa bat egiteko.

Lanak objektiboki neurritz baloratzeko, epaimahaikideek nagusiki ondorengo irizpideak baloratuko dituzte, egoki deritzoten beste batzuekin batera: teknikaren ondo erabiltzea, sormen eta originaltasuna, berritasuna eta argazkiekin transmititu nahi den mezua.

Erabakiak apelaezinak izango dira.

Irabazleen zerrenda, erakusketarako argazki hautatuak eta erakusketaren lekua eta data ondorengo helbidean argitaratuko dira: www.ayuntamientodeoyon.com. Nolanahi ere, hautatutako bakoitzari zuzenean jakinaraziko zaio posta elektronikoz edota telefonoz.

Arrazoituta, epaimahaiak sariak edo sariren bat eman gabe utzi dezake.

Epaimahaiak bertan behera utzi dezake lehiaketa gutun-azalak ireki gabe, baldin eta parte-hartzaile kopurua sei baino gutxiagokoa bada.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. **Sariak 2018ko uztailaren 15ean emango dira.**

6.- SARIAK.

3 sari daude:

a) Lehenengo saria: 400 euro eskudirutan.

b) Bigarren saria: 200 euro eskudirutan.

c) Hirugarren saria: 100 euro eskudirutan.

Sariak indarrean dauden arau fiskalei lotuta daude.

7.- LANAK ITZULTZEA.

Erakusketarako aukeratu ez diren lanak irailaren 1etik 15era jaso ahalko dituzte hori eskatzen duten egileek. Denbora hori pasatuta, Udalak ez du erantzukizunik hartuko lanen zainketaz. Hiru hilabete pasatuta, Udalaren ondasun artistikoaren parte izango dira, lagatako gisa, eta irabazi asmorik gabeko zabalkundetarako erabili ahalko dira.

Lehiakidearen esku egongo dira lanak bidali edo jasotzeko gastu eta kudeaketa guztiak.

Lanak ahal bezain ondoen zainduko dira; nolanahi ere, Udalak ez du erantzukizunik hartuko obrak pairatu ditzakeen kalteengatik manipulazio, bilketa edo erakusketan, ezta bidalketa, gordailutze edo itzultzean lapurtzeagatik edo galtzeagatik ere.

8.- AZKEN OINARRIA.

Aurkeztutako lanak eta euskarri digitalak Udalaren ondasun artistikoaren parte izango dira. Udalarenak izango dira lanen gaineko eskubide guztiak, betiere irabazteko asmorik gabeko egitasmoetan erabiltzeko: erreproduzio- zein zabalkunde-eskubideak. Zentzu horretan egiten den erabilera ororen helburua izango da udalerriko **ARDO- eta OLIO-jarduera** sustatzea.

Lehiaketa honetan parte hartzeak adieraziko du oinarrien erabateko ezagutza, ulermena eta onarpena, baita apelaezina izango den epaimahaiaren erabakia ere. Parte-hartzaileak ziurtatzen du betetzen dituela lehiaketaren baldintza guztiak. Era berean, lehiakideak onartzen du lehiaketatik zuzenean kanporatua geldituko dela, baldin eta oinarrietan jasotako baldintzaren bat guztiz betetzen ez bada edo lehiakidearen adierazpenen bat neurri batean edo guztiz faltsuak, okerrak edo gezurrak badira; hori guztia lehiaketan zehar, epaimahaiak sariketa eman eta gero edo sariak ordaindu eta gero. Kanporaketa hori argazki irabazleren batekin lotuta gertatuko balitz, lehiakideak sariaren zenbatekoa antolakuntzari berehala itzultzeko konpromisoa hartzen du.

Antolakuntzak erabakiak hartuko ditu oinarrietan jasotzen ez diren kontuen gainean, baita egoki deritzon puntuak moldatzeko ere.

OYÓN-OIONen, 2018ko maiatzaren 24an.